

GOBERNU BATZARRA

2014. 09.19

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko irailaren 19an, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Ibai Iriarte San Vicente	
Zinegotziak:	
Lore Agirre Zipitria	1.-Aurreko aktak onartzea.
Rosa M. Urkola Irigoien	2.-Iurramendi egoitza: abuztuko faktura.
	3.- 2014ko elkarteen egiturarako diru-laguntzak.
Idazkaria:	4.- Eskola kiroletako 2013-14ko diru-laguntzak.
Jose Luis Unanue Ugalde.	5.- Santa Lutzia auzoen mintegi bat egiteko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeko baldintza pleguak onartzea.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	6.- Topagunea zerbitzuaren kontratazioaren luzapena.
Paulino Alonso Eraso.	7.- 27/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko irailaren 5 eta 12an egindako batzarraren aktak aztertu eta aho batez onartu dira. Dena den, 12ko aktan, 4. puntuan, Euskara irizpideak udal kontratazioan erabakia bertan behera uztea esaten denean, Tolosako Udaleko hizkuntza irizpideak bertan behera uztea esan behar du.

2.- Iurramendi egoitza: abuztuko faktura.

Iurramendi egoitzak abuztuko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea abuztuko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 31.221,57 €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 1.750,26 €
Elbarrien defizita: 29.471,31 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

3.- 2014ko elkarten egiturarako diru-laguntzak.

Kirol teknikariak egindako txostena aztertu da, zein irizpide jarraitu dituen eta nola banatu dituen ohizko diru laguntzak ikusteko. Diru laguntza hauek Tolosako kirol elkarte eta taldeen egituraren garapenerako bideratuak daude.

Beraz, gaia aztertu ondoren eta Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2014ko ohizko diru laguntza hauek onartzea:

ELKARTEAK	DIRU-LAGUNTZA
Tolosaldea Usabal Igeri Kirol Taldea	10.300 €
Club Deportivo Tolosaldea Arraun Oria	12.537 €
Tolosa Club de Futbol	36.337 €
Tolosako Adiskideok Kirol Elkarte	11.546 €
Oriako Txirrindulari Eskola	4.188 €
Beotibar Club Deportivo	2.745 €
Club Deportivo Igarondo Urpekoak	3.728 €
Tolosako Xake elkarte	619 €
Laskorain Guraso Elkarte	3.198 €
Colegio RR PP Escolapios	3.170 €
Samaniego - Orixe	1.179 €
Oargi Mendi Elkarte (mahai tenisa)	1.896 €
Clun Alpino Uzturre (fondoko eskia)	1.840 €

GUZTIRA	93.283 €
----------------	-----------------

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

4.- Eskola kiroletako 2013-14ko diru-laguntzak.

Eskola kiroletako aurtengo diru laguntzei buruz Kirol batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren ikastetxeei 2013-2014 ikasturtean egin dituzten kirol ekintzengatik diru laguntza hauek ematea:

LASKORAIN	8.610 €
HIRUKIDE JESUITINAS	6,980 €
HIRUKIDE ESKOLAPIOAK	2,810 €
SAMANIEGO-ORIXE	6.600 €
GUZTIRA	25.000 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

5.- Santa Lutzia auzoen mintegi bat egiteko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeko baldintza pleguak onartzea.

Santa Lutzia auzoan mintegi bat egiteko, proiektua prestatu du Udal teknikariak.

Ikusita aipatutako proiektuko obrak kontratatzeko, pulizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, klausula administratibo partikularren agiria, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Santa Luzia auzoan mintegi bat egiteko proiektua, Udal teknikariak idatzia.

BIGARRENA.-Santa Luzia auzoan mintegi bat egiteko eta obrak kontratatzekeo espediente onartzea. Licitazio tipoa 55.148,80 €-koa(BEZA barne) da.

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko obrak kontratatzekeo, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

6.- Topagunea zerbitzuaren kontratazioaren luzapena.

Bi mila eta hamabiko irailaren 27an, Maindi Elkarteak asteburuetan Tolosako Topaguneko Aisialdiko Hezkuntza eta Dinamizazio Programa garatzeko kontratua sinatu zuen Tolosako Udalarekin.

Udal Gazteri teknikariak MAINDI ELKARTEAK burututako lanaren balorazio positiboa egin du. Kontratuan azaltzen diren irizpide guztiak modu egokian bete direla adierazi du.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- MAINDI ELKARTEAri kontratua urtebete luzatzea, 2014ko irailaren 27tik, 2015eko irailaren 27ra arte, hau barne.

BIGARRENA.- Kontratuan urteko 63.000€-ko prezioa mantentzea, lehendik erabakita zegoen bezala, eta urtero prezioa berrikustea, baldintza administratiboetan zehazten den moduan, hau da, hego Euskal Herriko lau probintzietako kontsumo prezioen Indizea aplikatuz, baldin eta kontsignaziorik badago.

HIRUGARRENA.- 2.014 urteko aurrekontuak kontutan hartuz, irailetik abendura bitartean kontratuaren prezioa bere horretan mantentzea: 5.273,62€

LAUGARRENA.- 2015 urtean, aldiz, azpikontrataturiko zerbitzuei dagokien irizpidea aplikatzea.

7.- 27/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **27/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **111.070,24** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 27/2014 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA